

KOSTUAK

Enpresa bat bizirik mantentzeko eta handitzeko dirua behar du. Horretarako, diru-sarrera ezberdinak erabiliko ditu (publizitatea, salmentak, mailegua...). Izan ere, enpresa guztiak kosteak izango dituzte. Kostu hauek bi multzotan zatitzen dira: finkoak eta aldakorak. Koste finkoetan erabilitako dirua ez da aldatzen (soldatak, alokairuak, inbertsioak...). Aldakorretan, berriz, erabilitako dirua ez da konstantea (argindarra, unitate bakoitzeko materialak...).

Gure enpresak hasieran ez ditu diru sarrerak izango, beraz ez ditugu soldatak izango, baina aplikazio aurrera goazen ala eta publizitateagatik eta harpidetza-primatik ateratzen dugun diruarekin gure soldatak gora egingo dute, hau da, diru sarrerak negatiboak izateari uzten dioten arte ez dugu soldatarik kobratuko, nahiz eta kobratzen hasten garenean soldata minimoa baino pixkat gehiago izango dugun, hau da, 1.000€, gero diru sarrerak haunditu ezkerok gure soldata ere handitu daiteke. Alokairua dohainik aterako zaigu, izan ere, taldekide baten garajea erabiliko dugu, ondorioz gastu gutxiago izango ditugu. Horretaz aparte, lehengo hilabeteen Play Storen eta App Storen inbertsio egin beharko dugu, eta guztira 107, 50 € ordaindu beharko ditugu, gastu hau lehen hilabeteen baino ez dugu egin beharko, izan ere lizentzia horiek ordainduta, nahi bezala igo al izango dugu gure aplikazioa ezer berriro ordaindu behar izan gabe.

Kostu aldakorrei dagokionez, kostuak finkoak baino handiagoak izango dira batez ere argindarragatik, izan ere, gaur egun, argindarraren prezioa Espainian 0,253 €/kWh-koa

da, eta etxe batek orduro gastatzen duen kW kopurua 3.487 da, eta nahiz eta gure ofizina ez den etxe bat izango, garaje txiki bat baizik, gure ofizina garaje bat denez, ez dugu argi naturalik izango, eta gainera gure lan guztia ordenagailuz eta mugikorrez egingo dugun, gure argindarraren erabilera oso altua izango da, etxe normal batena bezalakoa, eta gure lanaldia egunero 10h ingurukoa izango da, eta igandeetan ez genuke lanik egingo. Hau da, hilean

argindarra 270h-tan erabiltzea espero dugu, eta gastatuko dugun kopurua hilero 221,25015€ izango da. Horretaz gain, hilero hiru mila euro gordeko ditugu bestelako arazoentzat, hau da, gure ekipoa konpontzeko, edo beste edozein arazorentzat, eta hilabete batean sobratutako, hurrengo hilabetean gehitzen dizkiogun hiru mila euroei gehituko dizkiegu, hau da, arazo hauetarako lehen hilabetean hiru mila euroetatik mila gastatzen baditugu, depositu horretan hurrengo hilabetean bost mila izango ditugu, aurreko hilabeteko bi mila gehi hilabete horretako hiru milak.

Azpian ikus daitezken hiru taulak, izango ditugun diru sarrera, gastu eta irabaziak erakusten ditu, lehen taula lehen hilabeteetan izango ditugun irabaziak erakusten ditu, -649€, izan ere, lehen hilabetean gure aplikazioak ez ditu hainbeste erabiltzaile izango eta ez ditugu diru sarrera nahikoak izango irabaziak positiboak ateratzeko. Bigarren taula, lehenengo urtean zehar izango ditugun irabaziak erakusten ditu, non irabaziak 14.654€-koa izango dira. Eta azkena berriz lehenengo urtearen ondorengo gure irabaziak 20.037€-koak izatea espero dugu. Lortzen ditugun irabazien %30a enpresan

berrinbertituko ditugu, beste %70a berriz enpresako kontu korrontean gordeko ditugu, etorkizunean diru hori behar badugu eskura edukitzeko.

Ikusi dezakegun bezala, hasieran diru-sarrera kostuak baino gutxiago dira, hau da, dirua galduko dugu. Izan ere, erabiltzaile gehiago lortzen goazen bitartean, gure diru-sarrerak kostuak baino diru gehiago lortuko digu, enpresa handitzen.

| DIRU-SARRERAK | | DIRU-SARRERAK | | DIRU-SARRERAK | |
|------------------|---------------|------------------|----------------|------------------|----------------|
| Publizitatea | 2.500€ | Publizitatea | 18.000€ | Publizitatea | 30.000€ |
| Harpidetza prima | 1.198€ | Harpidetza prima | 8.478€ | Harpidetza prima | 14.362€ |
| GUZTIRA: | 3.698€ | GUZTIRA: | 26.478€ | GUZTIRA: | 44.362€ |

| KOSTUAK | | KOSTUAK | | KOSTUAK | |
|-----------------------|---------------|-----------------------|----------------|-----------------------|----------------|
| <u>Finkoak</u> | | <u>Finkoak</u> | | <u>Finkoak</u> | |
| Soldatak | 0€ | Soldatak | 5.000€ | Soldatak | 15.000€ |
| Inbertsioa* | 107,50€ | Inbertsioa* | 0€ | Inbertsioa* | 0€ |
| <u>Aldakorrak</u> | | <u>Aldakorrak</u> | | <u>Aldakorrak</u> | |
| Zor dugun portzentaia | 1.017,90€ | Zor dugun portzentaia | 3.603,15€ | Zor dugun portzentaia | 6.103,86€ |
| Argindarra | 221,25€ | Argindarra | 221,25€ | Argindarra | 221,25€ |
| Betselakoak | 3.000€ | Bestelakoak | 3.000€ | Bestelakoak | 5.000€ |
| GUZTIRA: | 4.347€ | GUZTIRA: | 11.824€ | GUZTIRA: | 26.325€ |

| | |
|-------------------|--------------|
| D. GUZTIRA: | 3.698€ |
| K. GUZTIRA: | 4.347€ |
| IRABAZIAK: | -649€ |

| | |
|-------------------|----------------|
| D. GUZTIRA: | 26.478€ |
| K. GUZTIRA: | 11.824€ |
| IRABAZIAK: | 14.654€ |

| | |
|-------------------|----------------|
| D. GUZTIRA: | 44.362€ |
| K. GUZTIRA: | 26.325€ |
| IRABAZIAK: | 18.037€ |